

## PRENTSA-OHARRA

### UPV/EHU-REN ETA OSALANEN ARTEKO HITZARMENA, ERIZAINZAKO GRADUAREN KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO

Barakaldo, 2018ko uztailaren 9a.- **Osalanek Hezkuntza-lankidetzaren hitzarmena sinatu du EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearekin, Erizaintzako graduako ikasleek Osalanen egoitzan kanpoko praktika akademikoak egin ditzaten.**

Prestakuntza gisa, kanpoko praktika akademikoak egiten dituzte ikasleek, Unibertsitateak gainbegiratuta; horien xedea da lan-munduan sartzeko beharrezko trebakuntza profesionala bermatuko duten gaitasunak eskuratu ditzaten laguntzea, hau da, enplegarritasuna erraztea eta ekintzailetzarako gaitasuna sustatzea.

Helburuetariko bat da erizaintzako gradudunei ezagutaraztea lan-erizaintzaren espezialitatearen arloan zer-nolako funtzioak egiten diren eta jarduera nagusiak zein talderi zuzentzen zaizkien (alegia, lanean diharduten herritarren osasuna babestea).

Hitzarmenaren arabera, Osalanek aukeratuko du lan-eskarmentua eta beharrezko ezagutzak dituen irakaslea, ikasle guztiei tutoretza eraginkorra eman ahal izateko. Pertsona hori arduratuko da trebakuntzari dagozkion jarduerak antolatzeaz, praktika-programako arduradunaren eta tutorearen arabera.

Osalaneko irakasleen funtzioen artean, honakoak egongo dira: ikasleari harrera egitea, horren jarduerak gainbegiratzea, orientazioa ematea eta praktikaren garapena kontrolatzea, elkarren arteko errespetuan oinarritutako eta ikaskuntzarekin konpromisoa duen harreman batez; antolakuntzaz nahiz erakundearen zein intereseko araudiaren funtzionamenduaz informatzea, batez ere segurtasunari eta lan-arriskuei dagokienez; praktikak gauzatzeko beharrezkoa duen trebakuntza

gehigarria ematea, eta laguntza ematea erakundearen egon bitartean, ikasleak bertan gauzatzen dituen jardueretan sortzen diren arazoei erantzuteko.